295. zk.
Bigarren aroa
Otsailak 15
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Inauteri inklusiboak

Elkarrizketa
Euskal Inauteriak
13. orrialdea

Kirolak
Xabi Martinez, Erroibideko entrenatzaile eta jokalariari elkarrizketa.

8. orrialdea

4-5 Elkarrizketa Juan Carlos Infante
6-7 Erreportajea Portzelanazko ondarea
9 Kirolak Pilota partida profesionala
10 Caser Inauteriak
11 Haurren Lanak Toki Alai LH1
12 Gazteen lanak El Pilar DBH2
14 Gazte infor
15 Agenda

ola
SAGARDOTEGIA
Iñaki Bengoetxea

TXOTX BERRIA

Kalitatezko sagardoa, bertako sagarrekin ekoiztua.

Asteburuetan, trikitiarekin.

943 62 31 30

ZATOZ !

Argazki lehiaketa

Leti Martiarena
Larreaundi auzoko etxe bat.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 39182

Jaizubia hiribidea

1985eko urriaren 20ko Osoko Bilkuran, L.U.K.T.ren proposamenez jarri zioten Jaizubia hiribidea izena.

"Jaizubia" hitzaren esanahiari dagokionez J.A. Loidik dio "(h)aitz" + "zubia" osagaiak dituela, beraz, nahiko esnahi garbia du: "harrizko zubia".

Jaizubiako parajean dago Urdanibia Jauregia. Bertako biztanleak zonaldearen parterik handienaren jabe ziren. Paraje honetatik igarotzen den errekak ere Jaizubia erreka izena du eta duela urte batzuk bertatik nabigatzeko modua zegoen. Jaizubia errekaren inguruan lantzen ziren produktuak itsasora ateratzeko aukera ematen zuen. Hori hala izanik, balio estrategiko eta ekonomiko handiko erreka zen.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Inauteri inklusiboak

Aniztasun funtzionala duten haurrek eta gazteek parte hartuko dute Zumba Crew-Aurreratu Elkartea konpartsan

Debut atsegina izango da aurten inauterietako larunbateko eta igandeko desfileetan. Konpartsa inklusibo bat egongo da, lehen aldiz, aniztasun funtzionala duten neska-mutilen parte hartzearekin. Irungo zumba monitoreen taldea, eta Aurreratu eta Atzegi elkarteak elkarlanean aritu dira egitasmoa aurrera eramateko. Konpartsa anitza izango da: bi elkarteetako haurrek eta gazteek, zumba monitoreek eta ikasleek, eta batzuen eta besteen gurasoek parte hartuko dute.

Hezkuntza premia bereziak dituzten haurren eta gazteen senideen elkartea da Aurreratu. Urteak daramatza lanean, haien errealitateari buruzko sentsibilizazioan, programen egokitzapenean eta azken aldian, jarduera inklusiboen antolaketan. Zumba inklusibo saioak egin izan dituzte, adibidez, aniztasun funtzionala duten neska-mutilekin, Irungo Zumba Crew taldeko monitoreen laguntzaz. “Inauterietako konpartsa eratzea bururatu zitzaigunean, Aurrerraturekin harremanetan jartzea modu naturalean irten zen. Ideia bikaina iruditu zitzaigun”, azaldu du Evelyn Gonzalez zumba monitoreak.

Aurreratu elkartean, gogoz hartu zuten proposamena. Hala ere, zalantzak izan zituztela aitortu du Mari Llucia Aurreratuko presidenteak: “Ezezagunaren aurrean beti izaten ditugu beldurrak, ez dakigulako gure neska-mutilek zein erreakzio izango duten. Jendez inguratuta daudenean, urduri jartzen direnean, zaila izaten da jakitea nola jokatuko duten”. Zalantzak-zalantza, Irungo lehen konpartsa inklusiboa martxan jartzeko ausardia bildu zuten. Atzegi adimen urritasuna duten pertsonen elkartearekin harremanetan jarri ziren, gainera, konpartsa osatzen amaitzeko.

Zailtasunak gainditu dituzte

Nani Enrique Zumba monitoreak onartu du “ezjakintasuna” ordaindu dutela: “Ez genuen imajinatzen konpartsa antolatzeak hainbesteko lana izango zuenik. Nahiko galduta ibili gara”. Trabak gainditu dituzte, hala ere, eta prest daude inauterietako desfileetan parte hartzeko. 80ko hamarkadako aerobik saioa irudikatuko dute. “Ez genuen mozorroetan diru gehiegi gastatu nahi. Etxean ditugun arropak baliatuko ditugu”, adierazi du Evelyn Gonzalezek. Atoi txiki bat ere eramango dute, apainduta.

Koreografia erraza prestatzeaz gainera, parte hartzaile bakoitzaren premien arabera egokitu dute. “Bakoitzaren kokapena kontuan hartu dugu, esate baterako”, aipatu du Mari Lluciak: “Gurutzatzeak egiteko zailtasunak dituztenak erdian kokatu ditugu, adibidez”. Entseatzen hasi direnean, beldur guztiak atzean utzi dituzte. Neska-mutilak primeran ari direla baieztatu du Evelyn Gonzalezek: “Ilusio handia dute gainera. Kantu guztietako hitzak nola abesten dituzten ikustea besterik ez dago”. Talde txikietan entseatzen aritu dira azken hilabeteotan. Otsailean zehar, berriz, entsegu orokorrak egiten ari dira, Eguzkitza Ikastetxeko jolastoki estalian.

Zumba monitoreentzat, esperientzia aberasgarria izan dela aitortu du Gonzalezek. Haurren eta gazteen gurasoentzat ere hala izan dela baieztatu du Lluciak: “Besteekin batera dantzan egiteko gai direla ikustea oso pozgarria da”. Aurreratu elkartearentzat, itzalean egin ohi duen lana gizarteratzeko aukera aproposa izango da inauterietakoa. “Guretzat, tranpolin egokia da, jendearen arreta erakartzeko”, aitortu du Lluciak. Judo eta errugbi saio inklusiboak ere antolatu izan ditu Aurreratuk, zumbakoez gainera. Inauterietako konpartsa ateratzea, beste urrats txiki bat da, aniztasun funtzionala duten haurren eta gazteen aukera berdintasunaren alde.

“Ezezagunaren aurrean beti izaten ditugu beldurrak, ez dakigulako gure neska-mutilek nola jokatuko duten”

Mari Llucia, Aurreratu Elkarteko presidentea

“Ikustekoa da kantu guztietako hitzak nola abesten dituzten”

Evelyn Gonzalez, zumba monitorea

JUAN CARLOS INFANTE, etxegabetzea jasan duen irundarra:

“Ezinbestekoa da banketxeei presio egitea”

Komunikabideetan oihartzuna izan zuen lehen etxegabetze kasua izan zen Irunen. 1996an, etxebizitza erosi zuen Juan Carlos Infantek, Larretxipi kaleko 36.ean. Hamasei urtez hipoteka ordaintzen aritu zen, langabezian geratu zen arte. Ordaintzeari utzi behar izan zion orduan, eta etxegabetze prozesua hasi zen. 2012an epaitegitik pasa behar izan zuen, pisuaren jabe den Kutxabank-ek bide penaletik eraman zuelako auzia. Epaileak ez zuen banketxearen eskaera aintzat hartu, eta negoziatzera presatu zituen bi aldeak.

Infantek salatu du ez dela negoziaziorik egon, eta bost aldiz aldatu diotela etxebizitzako sarraila. Aldiro, hura ireki eta etxea okupatu izan du Infantek. Urtarrilaren 3an, ate osoa aldatu duten arte. Pentsio batean izan da denbora batez, Irungo Udaleko Gizarte Ongizatea arloak bideratuta. Orain apartamentu bat alokatu du, eta sarrera ordaintzen lagundu dio udalak. Bestalde, banketxearekin harremanetan dago erakundea, Infanterentzako aterabide baten bila.

Zerk eraman zintuen hipoteka ordaintzeari uztera?
Nik lanpostu finkoa nuen, gozotegi batean. Hasieran ez nuen inolako arazorik eduki hipoteka ordaintzeko. Gero gozotegia erre egin zen, eta ni langabe geratu nintzen. Hipoteka ordaintzen jarraitu ahal izan nuen denbora batez, langabezia prestazioa amaitu zitzaidan arte. Ordaintzeari utzi behar izan nion orduan, eta kaleratze prozesua hasi zen.

Enkantera irten den etxebizitza, eta Kutxabankek eskuratu zuen. Etxegabetze prozesuari ekin zion segidan?
Sarraila aldatzen hasi ziren orduan, baina nik bertan bizitzen jarraitu nuen. Banketxeak epaitegietara eraman ninduen, bide penaletik gainera. Bi urteko kartzela zigorra eskatu zuen niretzat. Epaileak ez zuen akusazioa onartu, eta negoziatzera bultzatu gintuen sententzian. Bitartean, nik etxean bizitzen jarraitu ahal izango nuela ere azpimarratu zuen.

Hori ez da bete?
Negoziazioa hutsaren hurrengoa izan da. Gu saiatu gara beraiekin harremanetan jartzen, baina ez dute erantzunik ere eman. Bitartean, makina bat aldiz aldatu didate sarraila. Nik ez dut beste bizitokirik, eta aldiro atea ireki eta sartu izan naiz. Azken urteetan urik eta argirik gabe egon naiz etxean, banketxearen aginduz moztu zizkidatelako. Ur botilekin moldatu izan naiz batzuetan, eta lagunen eta senideen laguntza ere eskertu behar dut.

Etxebizitza okupatu izan duzunean, udalak horren berri izan du?
Bai, baina ez du inoiz neurririk hartu. Azken aldiz sarraila ireki nuenean, bizilagunen batek udaltzainei deitu zien, eta bertara agertu ziren. Nire kasua azaldu nien, eta polizia-etxera joan behar izan nuen, salaketa jartzera. Baina gero etxean bizitzen jarraitu ahal izan nuen.

Prozesuak iraun duen bitartean, lan egiteko aukera izan duzu?
Bai, gasolindegi batean lanean egon nintzen. Baina orduan ere, banketxeak ez zuen negoziatu nahi izan. Are gehiago, kontua enbargatu egin zidan, eta gutxieneko soldatatik gorako diru guztia kentzen zidan hilero.

Stop Kaleratzeak plataformaren babesa izan duzu prozesu osoan zehar
Nire kasua hasi zenean, sortu berria zen Irunen. Babes handia izan da, eta ez psikologikoa bakarrik. Nire abokatua, adibidez, plataformakoa da.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor Bacalaos

Oraingoan ez dizute sarraila aldatu, ate osoa baizik.
Bai, ate blindatua jarri dute, eta ezinezkoa da irekitzea. Pentsio batean geratzeko aukera eman dit Irungo Udaleko Gizarte Ongizatea arloak, eta bitartean apartamentu baten bila aritu naiz. Udala Kutxabank-ekin hitz egiten ari da, akordio baten bila. Nik ezinbestekoa dut udalaren babesa, norbanako batek baino botere askoz handiagoa baitu negoziaziorako.

Bi helburu argi ditut: zorraren ordainketari buruzko akordio bat lortzea, eta etxetik nire ondasunak atera ahal izatea. Denbora gehiegi eman dut egoera bidegabe honetan sufritzen, eta topea jarri dut jada. Konponbidea behar dut, lehenbailehen.

Zein neurritan baldintzatzen du zorrak zure bizitza?
Akordioren bat lortzen ez badut, ezin izango dut inoiz gainetik kendu. Gora egiten jarraituko du gainera, %30eko interesa ezartzen diotelako. Pentsa, prozesua hasi zenean, niri gutxi falta zitzaidan pisua ordaintzen amaitzeko. Momentu honetan, 160.000 eurotik gorako zorra dut banketxearekin.

Gainera, berankorren zerrendetan nago, eta ezin dut telefono konpainia batekin kontratu bat egin, banketxe batean kontu bat ireki, atzerrira irten, edo kotxe bat erosi edo alokatu. Lana lortzeko ere, zailtasun handiak ditut. Autonomo gisa, adibidez, ezingo nuke inoiz jardun. Ikaragarri mugatzen du nire bizitza. Eta eskerrak bikoterik eta semealabarik ez dudan.

Stop Kaleratzeak plataformaren bidez, beste bizilagunen kasuak ezagutu dituzu. Zein da kaleratzeen errealitatea Irunen?
Jendeak uste du ez dagoela kaleratzerik, ez dutelako oihartzun handirik. Baina jakina Irunen kasuak daudela. Horiek konpontzeko, ezinbestekoa da banketxeei presio egitea. Stop Kaleratzeak-en partetik, herri mobilizazioen bidez, baina udalaren laguntzaz ere bai. Duela gutxi, 180.000 euroko zorra zuen lagun baten kasua negoziatu genuen beste banketxe batekin, eta 5.000 euroan utzi zioten, etxea emanez. Nire kasua antzekoa izan liteke.

Portzelanazko ondarea

"Industria, Artea eta Memoria" erakusketa eskaini dio Oiasso Museoak Porcelanas Bidasoari

Oiasso Museoaren parean elkarretaratu ziren Porcelanas Bidasoa fabrikako langileak, 2009ko uztailan. Lantegiko ateak ixteko zorian zegoen enpresa, eta 47 behargin langabeziaren atarian zeuden. "Irun hiriaren antzinako historia dago Oiasson. Ondo dago iragan hori berreskuratzea, baina historia garaikideari eustea ere bai", adierazi zuen orduan ELA sindikatuko Xabi Perezek. Porcelanas Bidasoak ez zuen bizirik iraun, baina zazpi urte beranduago, haren memoriari lekua egin dio Oiassok. Irungo enpresa historikoari buruzko erakusketa hartu du. Martxoaren 5era arte ikus daiteke.

2011n, Porcelanas Bidasoa lantegiaren eraikina eraitsi zuten, haren omeneko izena daraman urbanizazioa eraikitzeko. Fabrikaren azken egunetan, enpresaren amaierako argazkiak ateratzeko aukera pribilegiatua eduki zuen Karlos Olivé argazkilari irundarrak. Berea izan da, hain zuzen ere, Oiasso Museoan ikus daitekeen erakusketa antolatzeko ekimena, eta Irungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlanak egin du posible. Izan ere, Gordailuan, Gipuzkoako Ondare Higigarriaren zentroan zeuden erakusketako pieza gehienak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa da Gordailua, baina Irunen bertan dago, Auzolan kalean.

Erromanizazioaren garaiari eskainitako museoa da Oiasso. Alabaina, noizean behin, bestelako erakusketak ere hartzen ditu. "Arkeologiarekin edo Irungo ondarearekin harremana duten gaiek lekua dute museoan", argitu du Pía Alkain Oiasso Museoko zuzendariak. Gainera, Porcelanas Bidasoari buruzko erakusketak antzinako Erromaren garaiarekin bestelako lotura bat ere baduela zehaztu du Alkainek: "Zeramikazko pieza asko ditugu museoan. Eta zeramika, portzelanaren aurrekaria da". Bestalde, bitxikeria bada ere, aipatzekoa da Porcelanas Bidasoa markaren logotipoak ereinotz koroa zuela. Sari gisa erabiltzen ziren halako koroak antzinako Grazian eta Erroman.

Karlos Olivéren argazki dramatikoek ematen diote hasiera erakusketari, Oiasso Museoko beheko solairuan. Amaieraren irudietatik, jauzi handi bat egin eta oinarrira jotzen du erakusketak. Areto berean, portzelanazko piezen sortze prozesu osoa baitago azalduta. Goiko solairuan, Bidasoan sortutako pieza artistikoak ikus daitezke, batez ere. Deigarria da Pablo Picassoren edo Salvador Dalíren mailako artistek egindako kolaborazioak daudela. Horiek, enpresak estatu mailan eta nazioartean izan zuen oihartzunaren proba direla adierazi du Alkainek. Beste zenbait adibide ere eman ditu: "Juan Mari Arzak eta Pedro Subijana sukaldariek Bidasoako baxerak erabili izan dituzte haien jatetxeetan".

Artisten eskola izan zen Bidasoa

Dena den, bertako artisauek sortutako pieza ere badira erakusketan. "Ezkutuko artista pila baten eskola izan zen Bidasoa", gogorarazi du Alkainek. Bidasoako langileek egindako hainbat pieza, apaingarri gisa saldu ziren garai batean. Gaur egun, ordea, artelantzat har daitezkeela zehaztu du Alkainek: "Asko aldatu dira modak. Etxea apaintzeko geneuzkan objektuak, erakusketa batean egon daitezke orain". Conchita Lacak, adibidez, atal berezia du erakusketan. 1952tik aurrera aritu zen Bidasoan, eta loreen itxurako pieza berezietan espezializatu zen. "Ez ziren saltzen. Prestigiozko objektuak ziren, enpresak opari gisa ematen zituenak", zehaztu du Lacak.

Emakume asko aritu zen Porcelanas Bidasoan lanean. Chocolates Elgorriagak bezala, eskualdeko emakumeei lan egiteko aukera eman izana txalotu du Alkainek. Oiassoko zuzendariak gertutik ezagutu ahal izan zuen lantegia, bere aitak bertan lan egin zuelako. Gainera, denda zuten familian, eta Bidasoako piezak saltzen zituzten. Pía Alkain bera aritu zen horretan, ikasle garaian. Bezero asko urrutitik etortzen zirela azaldu du: "Turisten ohitura zen, adibidez, eta jende famatua ere maiz hurbiltzen zen".

Porcelanas Bidasoaren alde artistikoan jarri du arreta Oiassoko erakusketak. Hala ere, enpresaren arrakastaren atzean beste ezaugarri bat dagoela uste du Alkainek: "Maila eta prezio ezberdinetako produktuekin, denentzako aukerak eskaintzen zituen. Horregatik zegoen gizartean hain zabalduta". Izan ere, hainbat eta hainbat etxetan daude, oraindik, Porcelanas Bidasoako baxerak, eta bestelako piezak. Hori kontuan hartuta, *Museoa denon artean* ekimena antolatu dute Oiasson, jendearen ekarpenekin erakusketa osatzeko asmoz. "Erakusketa martxan jarri, eta jendea hurbilduz edo deika hasi zitzaigun, etxean dituen piezen berri emateko", argitu du Pía Alkainek.

Porcelanas Bidasoaren gainbehera eta amaiera
1935ean sortu zen Porcelanas Bidasoa, eta bilakaera etengabea izan zuen hurrengo hamarkadetan zehar. 1980koan, ordea, gainbehera hasi zen. Arrazoien artean, sektoreko konpetentzia handia azpimarratu du Pía Alkainek, eta modaren aldaketa ere bai: "Gaur egun, nork erosten du portzelanazko baxera osoa?". 2006an, akordioa sinatu zuten enpresako zuzendaritzak eta Irungo Udalak. Lantegiaren lursaila eskuratuko zuen udalak, etxebizitzak eraikitzeko helburuarekin. Trukean, zorra kitatu ahal izango zuen enpresak. Momentu hartako 116 lanpostuak mantentzeko baldintza jarri zioten zuzendaritzari. Baina ez zuen bete, hurrengo urtean, erregulazio espediente batek 60 langile kale gorrian utzi zituelako.

2009an itxi zuten enpresa, 15 milioi euroko zorrarekin. Langile helduenei erretiroa eman zieten, baina beste asko langabezian geratu ziren. "Gehien sufritu zutenak 40-50 adin tartekoak izan ziren. Bizitza osoa zeramaten Bidasoan lanean", azaldu du Pía Alkainek. 1990eko hamarkadako itxiera traumatikoen ondoren (aduanak, Elgorriaga, Palmera etab.), hiriaren aro baten amaieraren azken pasarteetako bat izan zen Porcelanas Bidasoaren itxiera.

Erakusketaren fitxa teknikoa:
Argazkiak: Karlos Olivé.

Testuak: Javier Sagarzazu.

Argazki historikoak: José Mari Castilloren eta Miguel Salaberriaren artxiboak.

Produkzioa: Oiasso Museoa.

Diseinu grafikoa: K6 Gestio Kulturala.

Ordutegia:
Asteartetik ostegunera, eta igandeetan: 10:00-14:00.

Ostiraletan eta larunbatetan: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Bisita gidatuak larunbatetan, 12:00etan (izena emateko: 943 63 93 53).

Bi hilabete daramatza Pía Alkainek Oiasso Museoko zuzendaritzan. 46 urteko hondarribiarra da. Historia ikasketak egin zituen, eta Arkeologian espezializatua da. Mertxe Urteaga ordezkatu du, arkeologia teknikaria izango baita zuzendari ohia, Gipuzkoako Foru Aldundian. Alkainek ondo ezagutzen du Oiasso Museoa, Arkeolanen lanean aritu baita, museoak ateak ireki baino lehenago ere.

Egokitu al zara betebehar berrietara?
Lana ez da berdina. Nik ikerketa arkeologikoa egin izan dut, batez ere. Museoko jarduera ikerketa horiek zabaltzea da, baina kudeaketa lan handia ere badago. Esperientzia guztietatik ikasten da zerbait, eta gogoz hartu dut erronka.

Hamar urte bete ditu museoak iaz. Zein helburu duzue datozen urteetarako?
Nagusia, termak ireki ahal izatea. Museoaren atzean daude, estalita, eta izugarri politak dira. Euskal Herrian halako aztarnategi gutxi daude. Baina gainera, berau museoan bertan ikusi ahal izatea, berdingabea da. Oso tandem ona egingo lukete.

Zer falta da termak zabalik ikusi ahal izateko?
Dirua. Momentu txarrean iritsi zen aurkikuntza. Kulturan murrizketa handiak egin dira azken urteotan, eta erakundeek ezin izan dute halako inbertsio bat aurrera eraman. Espero dugu datozen urteetan erakundeak elkarlanean aritzea, proiektua errealitate bihurtu ahal izateko.

Gainerakoan, aldaketaren bat aurreikusten duzu?
Gauzek ondo funtzionatzen dutenean, hobe gehiegi ez aldatu. Programazio zabala dugu, eta hitzordu batzuk oso egonkortuta daude: FICAB arkeologia zinemaldia, Dies Oiassonis erromatar jaialdia etab. Udan, turismoa erakartzeko, erakusketa bereziren bat lortzen saiatuko gara. Bestalde, erakundeekin eta beste museoekin harremanetan jartzea eta lankidetzak sortzea da eginbeharretako bat.

XABI MARTINEZ, Erroibide Saskibaloi Elkarteko entrenatzailea eta jokalaria:

“Taldearentzat onak izan daitezke ikamikak, indartu egiten dutelako”

Erroibide Saskibaloi Elkarteari buruzko ikuspegi aberatsa du Xabi Martinezek (Irun, 1994). Hondarribian futbolean aritu ondoren hasi zen saskibaloian, kanpus batean parte hartu eta gero. Talde ezberdinetako jokalari eta entrenatzaile izan da azken urteotan. Orain bi eginbeharrak uztartzen ditu, senior mailako bigarren taldean, Gipuzkoako lehen mailan.

Zein izan da zure ibilbidea klubean?

Jokalari hasi nintzen. Kanpus batean parte hartu nuen, eta entrenatzaile batek proposatu zidan bere taldean hasteko. Aste beteko epean, futbola utzi eta saskibaloian hasi nintzen. Oso gustura ibili izan naiz harrezkero. Beranduago, junior mailako taldeko entrenatzaile izateko aukera eskaini zidaten. Aurten entrenatzailerik gabe gelditu ginen senior mailako taldean, eta erronka horri heltzea proposatu zidaten. Entrenatzaile eta jokalari nabil orain, aldi berean.

> “Erantzukizunak banatu behar dituzu”

Alde handia dago gaztetxoak eta helduak entrenatzearen artean?

Junior mailan, hezkuntza garaian dauden pertsonekin lan egin nuen. Orain helduekin ari naiz, batzuek nire adina dute, beste batzuek gehiago. Trataera ezberdina da, baina errespetua berdin lortu behar da. Denboraldia hasi baino lehen gauzak argi esaten baldin badira, behintzat, nik uste ez dagoela arazo handirik.

Nolakoa da aldi berean jokalari eta entrenatzaile izatea?

Zaila, betez ere, erantzukizunak banatu behar dituzulako. Adibidez, taldekideei behin eta berriro errepikatzen diezu zerbait ez egiteko, eta batzuetan zuk zeuk egiten duzu. Taldekideek hori leporatzen dizute, eta ikamikak sortzen dira. Baina nire ustez, larriak ez baldin badira, taldearentzat onak izan daitezke, indartu egiten dutelako.

Zer moduz ari zarete aurten lehiatzen?

Talde nagusiak, estatuko bigarren mailakoak, gertu ditu play-off postuak. Entrenatzeko izaten dituzten zailtasunak kontuan hartuta, ondo ari dira. Iaz, igoeraren atarian gelditu ziren, eta aurten ere, fase horretan egotea dute helburu. Gipuzkoako lehen mailako taldean, espero baino hobeto ari gara, igo berriak garelako.

Hamarkada bete du Erroibide elkarteak. Zein da klubaren egoera?

Alde batetik zaila, ez baita kirol nagusia Irunen. Futbolaz gainera, badaude beste batzuk aurretik: eskubaloia, piraguismoa... Ondorioz, jende gutxi ari da saskibaloian. Baina albiste onak ere badira. Esaterako, aurten infantil txiki mailako talde handi bat osatu du Erroibidek. Horrek esan nahi du harrobia badagoela.

> “Aurten, infantil txiki mailako talde handi bat osatu du Erroibidek”

Azpiegitura aldetik, eragozpen handiak ditu Erroibidek?

Artalekuko pistan Bidasoa eskubaloi taldeak du lehentasuna, eta batzuetan, Erroibideko lehen taldeak ezin izaten du astean hiru aldiz entrenatu, eskubaloirako pista urdina jarri behar delako, adibidez. Azken Portu kiroldegiko pista da alternatiba, baina ez ditu neurri ofizialak betetzen.

Estatuko Lehen Mailara iritsi ziren Erroibideko neskak, bere garaian. Baina talde hura desegin egin da.

Bai entrenatzailea, baita nesken multzo handi bat ere, Hondarribia Ikasbasket klubean ari dira. Badakit ondo ari direla saskibaloian, eta oso gustura daudela. Hori da garrantzitsuena. Erroibidek nesken kadete mailako taldea du gaur egun. Iaz izan zuten lehen urtea, eta saskibaloiko oinarrizko kontzeptuak barneratzen ibili ziren. Aurten gero eta hobeto ari dira.

Txapelketako azken hitzordua izango du Uranzu zaharrak

Irungo Uranzu frontoiarekin hitzordua du goi mailako pilotak. Eskuz Binakako Txapelketako norgehiagoka hartuko du Alde Zaharreko frontoiak, otsailaren 17an. Birmoldatzearen aurreko azkena izango da, udaran hasiko baitira lanak. 20:30etan hasiko da pilota jaialdia, Promozio Txapelketako lehiarekin. Ondoren, Elezkano II eta Zabaleta, Victorren eta Albisuren aurka ariko dira. Kurpil Kirolak elkarteak eta Asegarce pilota enpresak antolatu dute jaialdia, Irungo Udalaren babesarekin. EITBk eskainiko du jaialdia, zuzenean.

Aurtengo kartela ez da aurreko batzuetakoa bezain erakargarria. Aurrelariek izaten dute oihartzun gehien, eta oraingoan Uranzun ariko direnak ez dira, orain arte, bakarkako txapelak janzteko lehian ibili. Haien maila erakutsi dute, dena den, aurtengo denboraldian. Danel Elezkano bizkaitarrak oso neurketa onak egin ditu Eskuz Binakako Txapelketan zehar. Bizkaiko pilotazaleen itxaropen handienetako bat da Zaratamoko aurrelaria. Victor Esteban errioxarra Iñaki Altuna gipuzkoarraren ordez ari da. Alegitarra min hartuta dabil, abenduan lepauztaian hartu zuen kolpe baten ondorioz.

Aurtengo karteleko buruak, ordea, atzelariak dira. Gaur egun pilota munduan dauden atzelari jotzaileenetakoak dira José Javier Zabaleta nafarra eta Jon Ander Albisu gipuzkoarra. Haien arteko lehia, beraz, ikusgarria izan daiteke. Ligaxkako sailkapen orokorrean, Victor-Albisu bikotea hirugarren tokian dago, sei punturekin. Elezkano eta Zabaleta dituzte atzetik, laugarren postuan, bost punturekin. “Bi bikoteak sailkapenaren goialdean daude. Beraz, lehia bizia espero daiteke”, azpimarratu du Juanjo Aldako Kurpil Kirolak elkarteko presidenteak.

Eskuz Binakako Txapelketakoen aurretik, Promozio Txapelketako pilotariak ariko dira: Dario/Jaunarena-Errandonea/Martija. Jaialdia 20:30etan hasiko da. “Oarsoaldetik eta Bortzirietatik jende asko hurbiltzen da. Haientzat, ordu egokia da”, azaldu du Aldakok. Inguruko eskualdeetatik gerturatzen den jendearekin eskertuta dago Aldako. Irungo pilotazaleekin batera, frontoia betetzen dutelako: “Gu frontoi askotan ibiltzen gara, eta ikusten dugu zenbat jende biltzen duten. Bilbora eta Iruñera jendea joaten da, baina kontuan hartu behar da pilotaleku horietara bikote onenak eramaten dituztela. Eibarko Astelenan, adibidez, jende gutxi egoten da gaur egun”.

Peña kalean dagoen Kurpil elkartean eros daitezke Irungo jaialdirako sarrerak, neurketaren aurreko egunetan, 19:00etatik 20:30etara. Otsailaren 17an, 18:00etan irekiko dituzte Uranzuko lehiatilak. 30 euroren truke salduko dituzte kantxako aulkietako sarrerak, 25 euroan alboko harmailakoak, eta 25ean errebotekoak.

Uranzuren ezaugarriak eta etorkizuna

Irunen gutxitan jokatzen dute pilotariek. Ondorioz, ohitura falta nabaritzen dute. “Frontoi ona izanagatik ere, exijentea da. Zaila izaten da partidak nolakoak izango diren aurreikustea”, adierazi zuen iaz Abel Barriola atzelari beteranoak. Frontoi hotza dela ere izaten da pilotari askoren kexa. Dena den, frontoiak dituen eragozpenek, pilotariei baino gehiago, ikusleei eragiten dietela uste du Aldakok. Aurten berogailua egongo dela azpimarratu nahi izan du Kurpileko presidenteak.

Nolanahi ere, eragozpen horiek irtenbidea edukiko dute laster. Uranzu pilotalekuaren birmoldatze proiektua prest dago jada, eta Pedro Alegre udaleko kirol arloko ordezkariak aurreikusi du uztailean edo irailean hasiko direla lanean. Uztailaren leheneko pilota jaialdia, beraz, ez dago kolokan. 2018ko bi jaialdiak, aldiz, bertan behera geldituko dira. “Urte bete baino gehiago iraungo dute lanek”, argudiatu du Alegrek. Zenbait xehetasun ere eman ditu: “Sarrera Sarjia parkean egongo da. Frontisa eta egitura mantenduko dira, baina gainerakoan, berrikuntza handiak egongo dira”. Juanjo Aldako Kurpil elkarteko presidenteak onartu du “pozik” dagoela proiektuarekin: “Guretzat, garrantzitsuena zen frontoia ez lekualdatzea”.

Garai txarra pilota eskolarentzat

Lauzpabost gaztetxo besterik ez dabiltza, gaur egun, Kurpil elkartean esku pilotan. Gehiago dira palan eta trinketean aritzen direnak. Baina orokorrean, beheraldian dago pilota eskola. “Lehiaketei dagokien arautegiak min handia egin digu”, salatu du Juanjo Aldakok. 23 urtez, Joxe Lopetegi Memoriala antolatu zuen Kurpil elkarteak, alebinetatik jubeniletara arteko kategoria guztiekin. 14 urtetik beherakoei lehiatzea galarazi zietenean, ordea, bertan behera utzi behar izan zuten. “Gure mutilekin Nafarroan lehiatzera joaten ibili ginen, baina hori ere debekatu ziguten”, azaldu du Aldakok.

Beste traba bat ere azpimarratu du Kurpileko presidenteak. Duela hamar urte Uranzu pilotalekuko teilatua aldatu zutenean, urte betez ibili ziren alde batetik bestera. Uste baino gehiago luzatu ziren lanak, eta kalte handia eragin zuten klubean: “Gaztetxoak nazkatu egin ziren, eta beste klubetara joan ziren”. Pilotalekuaren birmoldaketaren zain dago Aldako, azpiegitura moderno eta egoki bat edukitzea, gaztetxoak erakartzeko modua izan daitekeelako.

Dena den, aspaldikoak dira pilota eskolak haurrak eta gazteak erakartzeko dituen arazoak. Irunen futbolak indar handia duela nabarmendu du Aldakok: “Iñaki Berruet bera gogoratzen dut. Pilotari bikaina zen gaztetan, baina futbola aukeratu zuen azkenean”. Behobiako eskolako irakasle baten eragina aipatu du Aldakok, Berrueten kasuan. “Irakasle pilotazaleak egon izan direnean, ikastetxeetan lehiaketak antolatu dituztenean, pilotariak atera dira”, adierazi du Kurpileko presidenteak. Gaur egun ere, ikastetxeetako irakasleekin eta gurasoekin biltzen direla azpimarratu du. Hala ere, ez dute neska-mutilak erakartzeko moduarekin asmatzen.

Egitarau oparoa Inauterietan

Jarduera egitarau zabala antolatu dute Caser Betharram-en eta Caser Anakan, Inauterien harira. Ostiralean, otsailaren 17an hasiko da, Donostiako Aquiarium-ak eskainitako tailer batekin. Lehenengo Betharram-en egongo dira, eta beranduago, 12:00etan, Caser Anakara hurbilduko dira.

Otsailaren 24a, larubata, egun garrantzitsuenetako bat izango da. Egoiliarrak mozorrotu egingo dira, eta musika, dantzak eta bestelako aktibitateak egongo dira.

ANAKA

17 ostirala: Donostiako Aquiarium-ak eskainitako tailerra, eguneko zentroan, 12:00etan.

20 astelehena: kaldereroen bisita Leka-Enea eskolan, 10:30etan.

22 asteazkena: inauterietako pregoia, 17:30etan solairuz-solairu.

23 osteguna: Inauterietako bingo berezia.

24 ostirala: inauterietan denak mozorrotuko dira, Musika, photo-coll-a eta lagileen mozorro lehiaketa egongo dira.

27 astelehena: 17:00etan, Gazte Landetxaren emanaldia, eguneko zentroan.

28 asteartea: Andaluziako Eguna. Bazkari berezia, eta sardinaren ehorzketa, solairuz-solairu, 17:30etan.

BETHARRAM:

17 ostirala: Donostiako Aquiarium-ak eskainitako tailerra, 10:30etan.

23 osteguna: Karaokea kafetegian, 11:00etan.

17:30: gozogintza tailer berezia terapia aretoan.

24 ostirala: inauterietan denak mozorrotuko dira. Musika, desfilea eta dantza.

27 astelehena: Nagusilan elkarteko Lolo boleroak kantatzera joango da, 17:30etan.

28 asteartea: inauterietako bingo berezia, 17:30etan.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

Toki Alai LH1

ASMAKIZUNAK

Batzuetan azkar besteetan poliki
batzuetan isilik, besteetan ozenki,
zu gabe ezin naiz bizi. Zer da?

Benat Etxaniz

Poliki poliki ibiltzen naiz
baina ez naiz alferra. Gainean
etxea daramat beti eta eguzkia dagonean
nire etxetik ateratzen naiz. Zein ote naiz?

Naiara Gomez

Polita landarea
Ederra lorea
jira eta bira
Eguzkiari begira

Leire Etxabe

Erantzunak:
1 Bihotza
2 Barrarkuloa
3 Elilorea

El Pilar DBH2



EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959ko iraila). Amari ikasi zion. (El Bidasoa, 1959-IX-12)

Arri arri kon kon

Arri Arri
kon kon,
asti artian
San Anton,
astizkenian
San Lukes
jo zak astua
mailukez

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

Luzaideko inauteria antzeztuko dute Irunen

Zazpigarren aldiz antolatu du Kemen Dantza Taldeak Euskal Herri Inauteria

Euskal ohitura zaharrekin lotutako ekimenak ere badira Irungo inauterietan. Puska Biltzea, adibidez, inauterietako ohitura zaharrena da bailaran. Zenbait kultur taldek eusten diote gaur egun. Inguruko herri inauteriek, halaber, badute tokia Irunen. Duela zazpi urte, Euskal Herri Inauteria antolatzeari ekin zion Kemen Dantza Taldeak. Herri ezberdin bateko inauteria ekartzen du urtero hiriko kaleetara, inauterietako larunbat goizean. Otsailaren 25ean izango da aurten, eta Luzaideko (Nafarroa) inauteria antzeztuko dute.

Euskal tradizio dantzatua zabaltzea dago Kemen Dantza Taldeak dituen helburu nagusien artean. Hori erdieste aldera jarri zuten martxan Euskal Herri Inauteria, 2010ean. Lantz, Altsasu, Goizueta, Amezketa eta Lizartza herrietako inauteriak antzeztu dituzte orain arte, besteak beste. Aurten, Luzaideren txanda izango da. Euskal Pirinioan dago Luzaide, Nafarroako lurretan, baina Donibane-Garazi Nafarroa Behereko hiriburutik hamaika kilometro eskasera. "Bizimodu behenafartarra dute, beraz", argitu du Andrea Berrotaran Kemen Dantza taldeko kideak.

> "Kabalkada bat da, formazio hierarkizatua du"
>
> **Andrea Berrotaran**

> "Helduen eta haurren jantziak egin behar izan ditugu"
>
> **Maitane Aranburu**

Bolant deiturikoen dantza multzoa inauteri garaian dantzatzen zen garai batean, Nafarroako eta Iparraldeko haranetako hainbat herritan. Bigarren Mundu Gerraren garaian galdu egin zen, ordea, eta Luzaidek besterik ez dio eutsi ohiturari. "60ko hamarkadan berreskuratu zuten", zehaztu du Berrotaranek. Gaur egun, Luzaideko gazte eta herritar asko kanpoan bizi direnez, Aste Santura atzeratu dute ospakizuna. Luzaideko dantzei buruzko zenbait xehetasun eman ditu Andrea Berrotaranek: "Kabalkada bat da, formazio hierarkizatua du, eta egitura militarrarekin antzekotasun handiagoa du, inauterietako ohiko formazio informal eta anarkikoarekin baino".

Inauteri aberatsa eta anitza da Luzaidekoa, dantzen eta pertsonaien kopuruari eta ikusgarritasunari dagokionez. Parte hartzaile guztientzako jantziak lortzea izan da Kemeneko kideen buruhauste handienetako bat. "Zortzi bikoterentzako jantziak besterik ez genituen taldean. Berriak egin behar izan ditugu, helduentzat eta haurrentzat", adierazi du Maitane Aranburuk. Kemeneko harrobia den Adaxka taldeko haurrak, azaroaz geroztik ari dira Luzaideko dantzak lantzen. 150 neska-mutil inguru ariko dira otsailaren 25ean, Kemeneko gazteekin, eta astean behin euskal dantzak ikastera joaten diren helduen taldekoekin batera.

Edonola ere, egitasmo irekia da Euskal Herri Inauteria. Horregatik, interesa duen edonork parte hartu dezake Kemenek antolatu dituen entsegu orokorretan. Azkena otsailaren 18an izango da, 11:00etan Dunboa eskolan. Otsailaren 25ean, 12:00etan irtengo da Luzaideko kabalkada, Irungo Pio XII plazatik, bertan dantzatu ondoren. Beste hiru aldiz dantzatuko dute gero, Zabaltzan, San Juanen eta Erromes plazan egingo dituzten geldialdietan.

Puska Biltzea egingo dute igandean

Euskal Herri Inauteriaren egun berean, puskak biltzen ariko dira Eraiki eta Meakako Adixkideak dantza taldeak, eta Txorimaloak soinu taldea, Behobia-Bidasoa, Meaka eta Anaka auzoetan, hurrenezhurren. Kemen Dantza Taldea igandean irtengo da, Olaberria auzoan zehar. Fandango eta arin-arin dantzak eskainiko dituzte baserrietan, janariaren truke. 1936ko gerraren aurretik, eskean ateratzen ziren Irungo gazteak, Gabonetan edo Santa Ageda bezperan bezala. Inauterietan, kantatu beharrean, dantza egiten zuten. 40 urteko diktaduraren ostean, 1970eko hamarkadan berreskuratu zuten ohitura zaharra.

HIZKUNTZA ESKOLA
Aurten hamasei urte betetzen dituen, edo helduagoa den edonork du matrikulatzea Hizkuntza Eskolak irakasten duen edozein hizkuntzatan eta maila hauetan: A2, B1, B2 eta C1. Euskarazko C1ean ez dago aukerarik libre moduan aurkezteko.

Matrikulazio epea? Matrikula librea: 2017ko otsailaren 1etik 15era (13:00a arte).

Informazio gehiago: http://www.hezkuntza.ejgv.eus-kadi.eus/r43-heoi/eu/

MIKROMEZUEN LEHIAKETA. "KONTSUMITZAILEEN EGUNA"
Kontaiguzu nolako esperientzia duzun kontsumoarekin:
-Eskatu ez dituzun mezuak jasotzen dituzu zure telefono mugikorrean?,
- Interneten bidez zerbait erosi duzu eta ez zaizu iritsi?,



- Nola izan gaitezke arduratsuak sare sozialetan?
- Kontsumo eraginkor bat egiteko proposamenik?...

Leloa: "Kontaiguzu nolako esperientzia duzun kontsumoarekin..."

Epea: martxoak 4.

Norentzat: 10-16 urte bitarteko gazteentzat.

- 1.go kategoria: Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleak eta DBHko 1.go mailakoak .
Saria: 2 tablet (Samsung Galaxy), hizkuntza bakoitzeko bana.

- 2. kategoria: DBHko 2., 3. eta 4. mailetako ikasleak.

Saria: 2 ordenagailu eramangarri, Nvidia GeForce txartel grafikaorekin, hizkuntza bakoitzeko bana.

Deialdia egiten duena: Irungo Udaleko (KIUB) KONTSUMO BULEGOA.

Ez dakizu nola parte hartu???
Pentsatu eta ekin, euskaraz edo gaztelaniaz, 140 karaktere gehienez eta... Parte hartu!!!
Zure mezuak bidali:
- Posta elektronikoaren bidez omic@irun.org
- Whatsapp bidez 607 771 173
- Twitter bidez @irunconsumo

AUZOLANDEGIAK 2017 PROGRAMAREN KARTELA ZUK EGIN DEZAKEZU
2017ko Auzolandegiak programako kartelak zuk egindako irudia izan dezake, eta trukean aparteko joan-etorriko hegazkin bidaia bat irabaziko duzu Hego Amerikako herrialde batera...

Auzolandegiak programarekin bat datorren kartel bat egiteko ideiaren bat baldin baduzu, teknika ezberdinak balia ditzakezu; argazkiak, marrazkiak, collageak etb. Irudiarekin batera, gazteak programan parte hartzera animatzeko aproposa den lelo bat ere bidali behar diguzu.

Lanak aurkezteko epea: 2017ko urtarrilaren 16tik otsailaren 20ra bitartean (bi egunak barne).

Zer bidali:
Irudia: Kartelaren irudia JPG formatuan, 72 p.p.p.-ko bereizmenarekin eta 70 x 50 zm-ko neurrian (bertikalean zein horizontalean) aurkeztu beharko da. Leloa: Lelo bat proposatu behar duzu. LELOA EZ DUZU IRUDIAN TXERTATU BEHAR, izen emate orrian idatzi baizik. Euskaraz zein gazteleraz proposatu dezakezu leloa.
Leloa zein bestelako logoak ez dira irudian agertu behar. Irabazle suertatzen den kartelaren maketazioa geuk egingo dugu, lelo eta logoekin.Izena emateko fitxa bidali behar duzu zure datuekin beteta.

Informazio gehiago:
http://www.gazteaukera.eus-kadi.eus/albistea/2017/auzolandegiak-2017-programar

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ADI EGON!!! ORDUTEGIAREN ALDAKETA IGAZTEN

Astelehetik ostiralera: 11:00 - 13:30.

Astelehen eta asteazkenetan: 17:00 - 19:30.

Edozein kontsulta, zalantza, iruzkin, iradokizun-edo baldin baduzu, whatsapp bidez jar zaitezke harremanetan:

607 771 173 whatsapp zenbakian, igazte@irun.org posta elektronikoan edo gure web gunean (www.irun.org/igazte)

INAUTERIAK 2017

Otsailak 23: Zanpantzar
- 19:00etan: ZANPANTZAR konpartsa, Gaiteroak, Bidasoako Erraldoiak , Irungo Udal Kontserbatorioko Ikasleak, Auntza Trikitrixa Taldea eta Txingudi Dultzaineroak lagun dituela, Alberto Anguera plazatik irtengo da eta Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki kalea, Colon Ibilbidea zeharkatu ondoren, Zabaltza plazaraino helduko da.
- 19:30etan: Zabaltza plazan.

Otsailak 24: Konpartsen aurkezpena.
Non? Amaia Kzn
Ordua? 20.00etan
Sarrera? Gonbidapenarekin.

Otsailak 25:
- 9:00: Baserri giroko inauteriak. Eraiki dantza taldea Bidasoa eta Behobia auzoetan ibiliko da baserriz baserri.

- 9:30: Baserri giroko inauteriak. Meaka dantza taldea Meakako baserrietan barrena ibiliko dira.

- 10:00: Baserri giroko inauteriak. Txorimaloak soinu taldea Anakan ibiliko dira baserriz-baserri.

- 11:45: Pio XII. Plazatik aterako da EUSKAL-HERRI INAUTERIA, eta Serapio Mujika, Juan Arana, Luis Mariano, Zabaltza plaza, Colon ibilibidea, Foru Karrika, Kale Nagusia, San Juan plaza, Eliza kalea, Eskoleta kalea eta Junkaleko plazatxotik igaro ondoren, Erromes plazan amaituko da. Kemen Dantza Taldeak antolatua da ekitaldi hau.

- 17:00: INAUTERIKO DESFILEA. Letxunborro hiribidetik irten eta Prudencia Arbide kalera helduko da, ZANPANTZAR ETA KONPARTSAK lagun izango dituela.

- 20:00: San Juan plazako inguruetan MUSIKA ANIMAZIOA, BURRUNBA elektro txarangaren eskutik.
- 20:30: DISKOFESTA Zabaltza plazan, 23:30era arte.

Otsailak 26
- 9:00etan: Baserri giroko inauteriak. Meaka dantza taldea Meakako baserrietan barrena ibiliko dira.

- 09:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA. MEAKAKO ADIXKIDEAK DANTZA Taldea Arbesko plazatik irten eta Meaka auzoan barrena ibiliko da.

- 09:00etan: BASERRI GIROKO INAUTERIA. KEMEN DANTZA TALDEA Olaberria auzoan ibiliko da baserriz baserri.

- 17:00etan: INAUTERIKO DESFILE HERRIKOIA. Letxunborro hiribidetik irten eta Prudencia Arbide kalera helduko da, ZANPANTZAR ETA KONPARTSAK lagun izango dituela.

Otsailak 16

Zer? Irungo Mendizaleak elkarteak beteranoen irteera antolatu du Debara.

Informazio gehiago? Informazio gehiago jasotzeko, Irungo Mendizale elkartean: astearteetan eta ostegunetan 19:00-21:00.

Otsailak 26 arte

Zer? Irungo inauterietako kartel lehiaketa. Irungo 2017ko inauterietako programaren barruan, inauteriak iragartzeko kartelen sariketa dago. Aurtengo edizioan, guztira, 23 kartel aurkeztu dira, eta inauterietan parte hartzen duten konpartsak izan dira irabazlea eta bigarren sailkatua (accesitaren irabazlea) aukeratzeko arduradunak.

Non? Amaia KZn.

Ordutegia? Asteartetik larunbatera: 18:00-21:00;
Igande eta jai egunetan: 11:30-13:30.

Prezioa: Doan.

Otsailak 18

Zer? Kaldereroen konpartsa Alberto Anguera plazatik irtengo da, Irungo Atsegiña elkarteak antolatuta. Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki kalea, Colon Ibilbidea, Foru Karrika eta Nagusi kaletik igaro ondoren, San Juan plazara iritsiko da.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa: doan.

Otsailak 15etik 26ra

Zer? "Argizaiola" argazki erakusketa AFI-k antolatuta.

Non? Laboral kutxan. Colon ibilbidean.

Ordutegia? Astelehenatik larunbatera: 19:00-20:30 /
Igandeak: 12:00-13:30.

Prezioa: Doan

Otsailak 24tik 26ra

Zer? Italiako Zirkua "Vida".

Non? Ficoban.

Salmenta: Leihatilan edo http://ilcircoitaliano.com/ webgunean

sarreren salmenta

ELATZETA IKASTETXEA

KALITATEZKO ESKOLA

Matrikulazio epea:
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Bisita eguna otsailaren 2an 16:15ean

Landetxa-Irun. Tel: 943 93 77 59
www.elatzeta.eus elatzetaidaz@gmail.com

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa